

## Kirola

Laureano Larak eta Jimi Rojasek Durango Street KO jaialdiko borrokaldi nagusian parte hartuko dute > 11



**JAIK!**



## Fabrika abandonatuen egoera: eta orain zer?

Fundifes, Ductilor-Fytasa eta Cárnicas Felipe Amezua enpresak, edo Zugaza zinemaren osteko eraikina Durangaldean abandonatuta eta hondamen egoeran dauden eraikinetako batzuk dira. Baina espazio hil horiek nola berpiztu daitezke? Udalak badu zer edo zer egiteko eskumenik? > 3



**KURUTZIAGA  
IKASTOLA**

*ezagutu gaitzazu!*

0-18 urte bitarteko eskaintza!

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!  
OTSAILAREN 2tik 13ra

[www.kurutziagaikastola.net](http://www.kurutziagaikastola.net)

Haur Hezk.: bisita gidatuak urtarrilaren 30ean eta 31n.  
DBH: hitzaldiak otsailaren 3an (Zaldibar) eta 9an (Durango).  
Deitu eta hartu hitzordua! 946 200 822



### Zornotza > 2

Lan-istripua salatu, eta neurriak hartzeko eskatu dute

### Durango > 4

Kabilduosteko proiektuari buruz eztabaidatu dute udalbatzarrean

### Otxandio > 6

2014ko soberakinak malgutasuna emango die udal kontuei

### Iurreta > 7

Diru-sarreraren Berme Errentaren aldeko mozioa onartu du udalak

**Herririk herri****Hildako langilearen lan-istripua salatu, eta neurriak hartzeko eskatu dute**

Sindikatuak eta Zornotza Eraldatuz herri ekimenak elkarretaratzeak egin dituzte



Astelehenean, Boroako biribilgunean egindako elkarretaratzea.

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Joan zen barikuan 62 urteko behargin bat hil zen lan-istripu baten erruz, azpikontratututa, Boroako Forest Traffic enpresarako lanean zebilela. 2015ean lan-istripuan hildako lehen

behargina izan da Zornotzakoa. Istripua salatzeke, elkarretaratze bi izan ziren astelehenean; bata eguerdian, LAB, ELA, STEE-EILAS, HIRU eta EHNE sindikatuak deituta, Boroako industriagunerako sarreran;

bestea arratsaldean, Zornotza Eraldatuz herri ekimenak deituta, Erreferendum plazan.

Eguerdiko elkarretaratzean sindikatuak jakinarazi zuten Osalanen aurretostenaren zain daudela, lan-istripuaren

gaineko xehetasunak ezagutzeke. Ez dakite langilea hil zuen istripua zehatz zelan gertatu zen, enpresa horretan “ez dagoelako ordazkari sindikalik”. LABek salatu duenez, “berriro ere saihestu zitezkeen heriotz bat gertatu da, berriro ere azpikontratututako enpresa batean”. Horren aurrean, “erantzun bat” ematea exigitu du LABek, eta, “arrazoiak ikertzeaz gainera, arduradunak publikoki ezagutaraztea eta neurriak hartzea” eskatu du, “gertaera tamalgarri hau berriro gertatu ez dadin”.

Zornotza Eraldatuz herri ekimenak argi du horrelako istripuak ez direla “kasualitatez edo zorte txarragatik gertatzen”. Lan-istripuen atzetik “prekarietatea, lan baldintza txarrak, lanordu luzeak eta segurtasun falta daude; eraiketa patronala izan da, euren diru gosegatik gertatu da”.

**Zengotitabengoa presoaren bizi-baldintzak hobetzeko eskaera****ATXONDO J.D.**

Andoni Zengotitabengoa presoak Lisboako Monsanto espetxean dituen bizi-baldintzak hobetu daitezkeen ahaleginduko da udala. Horretan saiatu dadin eskatzen duen mozia aho batez onartu zuten EH Bilduk eta EAJk joan zen asteko udalbatzarrean. Monsanto segurtasun goreneko espetxe zuzendariari, Portugalgo Herriaren Defendatzaileari eta Espetxe zuzendari nagusiari eskatuko diote presoaren segurtasun goreneko espetxe batetik espetxe arunt batera eraman dezaten.

Zengotitabengoa 2010ean atxilotu zuten, Portugalen. Mozioak jasotzen duenez, esaterako, “urtean behin bakarrik du alabekin aurrez aurrekoa, eta hiru urte dira amak besarkatzen ez duela”. Gainera, “ziegan 22 ordu egiten ditu bakarrik egunero”.

**‘Herriko tabernen’ eta hango langileen kontrako “epaiketa politikoak” salatu dituzte**

Auzitegi Nazionalak zigor epaia eman zuen iaz

**ZORNOTZA J.D.**

Euskal Herriko hainbat *herriko tabernari* zein bertako langileei eragiten dien Auzitegi Nazionalaren sumario bat zigor epaiaz gaz amaitu zen iazko uztailean.

Epaia zelan exekutatu den zain daudela, prentsaurreko bat eskaini zuten zapatuan Zornotzako Belatxikieta elkarteak, “epaiketa politiko gehiagorik ez dadila egon” eskatzeko.

CCOO, LAB, ESK eta EHNE sindikatuak, eta EH Bildu eta EAko ordezkariak babestu zuten prentsaurrekoa.

Zornotzako Belatxikieta elkarteak bere etorkizuna jokoan duenetako bat. Hamabi urte dira Euskal Herrian lehen atxilotetako egin zituztenetik, eta “akusatatu bakar baten aurkako delitu konkretu bati buruzko frogak bakar bat ere entzun gabe” eman zuen epaia Auzitegi Nazionalak, “egitateen testuingurutik kanpo eta eremu judizial harago zeuden irizpideetan oinarriturik”, azaldu zuten. *Herriko taberna* horien zigorra eta konfiskazioa “lokalak euren borondatez eraiki zituzten milaka pertsonen aurkako zigor kolektiboa dira, eta baita bertan lan egiten duten ehunka langileen aurkakoa ere”.

Udalean gai honi lotutako mozio bat sartu dute otsaileko udalbatzarrean bozkatzeko. Aurretik auzia artxibatzea eta auzipetuak absolbitzea eskatzen duen beste mozio bat ere onartuta dago EH Bilduren eta EAJren botoekin.

**Gure Esku Dagok aurrera begirako plangintza azaldu die herritarrei****ZORNOTZA J.D.**

Joan zen larunbatean Zornotzako Gure Esku Dago herri dinamikak 2015. urterako ekimenak aurkeztu zituen Zelaieta zentroan, auditorium betean. Aurtengo helburua ezberdinen arteko borondatea jostea da. Horretarako, oihal zatiak elkarrekin josiko dituzte, eta hautetsontzi erraldoi bat osatuko dute ekainaren 20an, herrialde bakoitzak bere hiriburuan erakutsiko duena. Hurbildu zirenek ariketa praktikoan bat egin zuten herritar ezagunen laguntzagaz, eginbeharrekoak hobeto ulertzeko. Ekitaldian parte hartu zuten Seiren taldeko Onintze Garciak eta Jokin Lacallek, Javi Renobales aktoreak, Miren Larrea txotxongilo aktoreak eta Unai Ormaetxea bertsolariak, besteak beste.

**Kontratua luzatu dio udalak Herriko Tabernari****GARAI Markel Onaindia**

Garaiko Udalaren eskumenekoa da Herriko Taberna, eta azkenekoz 2013an adjudikatu zuten enkante bidez, urte birako epeagaz. Bihar amaitzen zen kontratu hori, baina udalak beste urtebetez luzatzeko erabakia hartu zuen udalbatzarrean. Datorren urtean egingo dute berriro enkantea.

Tabernaren gestioaz arduratzen direnei orain arteko baldintza berberak ezarri dizkiete beste urtebetez ere, eta urteroko kuota ere prezio berean mantendu diete.



Zapatuko prentsaurrekoko irudia.

**Laguntzaileak:**

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

**anboto** komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215-lurreta (Bizkaia)

Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523

Publizitatea: 946 217 902

publi@anboto.org

2015eko urtarrilaren 30a, 13. urtea - 575. alea

**Zuzendaria:**

Jone Guenetxea Arrinda.

**Administrazio burua:**

Itziar Belar Zubizarreta.

**Administrazioa:**

Miren Abasolo Txabarri.

**Publizitatea:**

Goretti Alonso

Armendia, Amaia Huarte Basabe,

Itxaso Altuna Marina.

**Erredakzioa:**

Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso

Esteban Urriaga, Joseba Derteano

Bilbao, Markel Onaindia Txabarri

eta Amaia Ugalde Begoña.

**Maketazioa:**

Eider Alberdi Bengoa.

**Zuzentzailea:**

Jon Ander Urkiaga Egidazu.



## Aukera Azoka egingo dute gaur arratsaldean eta bihar, frontoian

**BERRIZ** Amaia Ugalde BME Berrizko Merkatarien Elkartek azoka egingo du gaur arratsaldean eta bihar egun osoz, pilotalekuan. Arropa denek eta burdindegia euren jeneroa dendan baino merkeago eskainiko dute bertan.

Gaur, 16:30etik 21:00etara egongo dira dendariak pilotalekuan, eta bihar, zapatua, 10:00etatik 20:00etara.

BMEko Amaia Zabalak azaldu duenez, Berrizko merkataria "egoerari eusten" dabilta momentu honetan. Herrian denek duten funtzioa nabarmendu du: "Batzuetan konturatu ez arren, denda txikiak bizia ematen diote herriari".

## Urtarril, otsail eta martxoan, ipuin kontalari saioak Udal Liburutegian

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban Urteko lehenengo hiru hilabeteetarako ipuin kontalaritza saioak antolatu dituzte Udal Liburutegian. Urtarrilean, otsailan eta martxoan, hilean saio bana eskainiko dute. Gaur izango da hiru saioetan lehenengoa. Musika eta istorioak uztartzen dituen Badut taldearen emanaldia izango da gaur, 17:30etik aurrera. Otsailaren 27an eta martxoaren 27an izango dira beste hitzordu biak: Eider eta Miren, eta Andrina Basandrinaren ipuin kontalariak gonbidatu dituzte egun horietarako. 3-5 urtekoentzako saioak 17:30ean egingo dituzte, eta 6-9 urtekoentzakoak 18:00etan.



Durango, zinemaren atzealdean dagoen partzela.



Elorriko Fytasa enpresa 2011z geroztik dago itxita.

## Fabrika abandonatuak: zelan berpiztu espazio hilak?

Hainbat eraikin hondamen egoeran daude, urtetan abandonatuta egon ostean

**DURANGALDEA** M.O. Urteak atzera bizirik zeuden enpresen hezurdurak dira. Gehienak enpresek porrot egin ostean geratu ziren horrela, hondamen egoeran. Eraberritzeko edo botatzeko inbertsio barik, urtetan kaltetzen eta jausten joan dira eraikinak, eta herritarrentzako traba edo arrisku bihurtu dira sarritan. Gainera, herrirako espazio izan ahal diren lurrak erabilera barik geratu dira. Baina zelan berpiztu espazio hil horiek? Jabe pribatuak dituzte, beraz, zenbateko erantzukizuna daukate udalek?

**Paisaiaren parte** Hainbat herritako paisaiaren parte bihurtu dira, eta Durango Tabira auzoan dagoen Fundifespren kasu argienetako bat. 2008an zarratu zuten, eta ugazabek, beharginei kalte-ordainak eman beharrean, lurra utzi zuten euren esku. 16.000 metro karratuko lur horren birkalifikazioa eskatu zioten langileek udalari, hiru arrazoiengatik: kalte ordainik barik geratu zirelako,

herritarren intereseko zerbait egin behar zela uste zutelako, eta hondakinek ingurumena kaltetu zezaketelako. Baina udalak ez zuen ideia babestu. Gainera, eraikina okupatu zuen lagun talde batek gerora, eta indarkeria matxista kasu bi jazo ziren: 2011n andre bat hil zuten, eta 2012an sexu eraso egin zuten.

Durango bertan, herriaren erdigunean, Zugaza zinemaren atzealdeko partzela ere urtetan dago abandonatuta.

Bestetik, Berrizen 60ko hamarkadan eraikitako Cárnicas Felipe Amezua hiltzaria erkidegoan haragi gehien saltzen zuten enpresetako bat zela azaldu zuten sindikatuak, eta 2006ra arte irabazi handiak eduki ei zituen. Baina, beharginak kobratu barik eta lan barik egon ostean, itxi egin zuten 2007an. Elorrioren 2011n itxi zuten 160 behargin zeuzkan Ductilor-Fytasa galdategia. Zorrak zirela-eta, Konkurtso Legean sartu zen enpresa 2009an, eta 2011n likidatu zuten.

**Udalaren tresnak** Durango eta Berrizko udaletan galdetuta, ezer gutxi egin dezaketela diote, jabeago pribatukoak direlako. Baina ez da iritzi berekoa Hodei Zenikaonandia, Urak Bide taldeko eta Zaldibarko udal arkitektoa. "Lurzoru Legearen bigarren puntuak dio hirigintza funtzio publikoa dela. Udalak ikusten badu beharrezana dagoela eta bideragarria dela, hori konpontzeko tresnak baditu".



**"Hori konpontzeko tresnak baditu hirigintzak"**

HODEI ZENIKAONANDIA

Horregatik, hondamen egoeran dagoen espazio hori antolatzen eta kudeatzeko plan bat behar dela uste du Zenikaonandia. Lurjabeek dagokienez, ondareak, eskubideaz gain, betebeharrak ematen dituela gogoratu du. Ondorioz, bere arabera, udal presioa egin beharko lukete hondamen egoeran dauden

eraikinei buelta emateko. Hori bai, orain gutxi arte hirigintza "kostu soziala kontuan hartu barik" eta etxeen prezio altuan oinarritu dela kritikatu du. "Lur-jabeak ezin du pentsatu metro karratuagaz ez dakit zenbat lortuko duela. Gaur egun dagoena ordaintzen da".

Interes publikoari begiratu-ta, Zenikaonandia dio desjabetzearen aukera ere badagoela, baina "dagoena ordainduta". "AHTaren tankerako proiektuetarako bakarrik erabiltzen den aukera da". Iurretan txapalantegi zaharra desjabetu zuen udalak, 2008an, parke bat egiteko.

**"Sasoi interesgarria"** "Sasoi interesgarria" bizi dugula azaldu du arkitektoa, hiri lurzorua berrantolatzen ari dela: "Jendeak dio ea zertarako egingo den Plan Orokor berri bat Durango, kalifikatzeko lurrik ez badago. Hori akatsa da. Plan Orokor bat behar du, eraikitako hiria antolatzen". Zenikaonandia adierazi du azken urteetan herritarren interesen alde hirigintza berrantolatzen ari direla. Durango bertan, trafikoaren berrantolaketa ipini du adibide, baita Otxandion errepidea herriaren atera izana ere. Urak Bidekoek Zeberio eta Abadiño Plan Orokor berriak gidatu dituzte, besteak beste.

# IURRETAKO HEZKUNTZA EREMUA

Olaburu auzunea IURRETA



2-12 urte

MAIZTEGI  
HH eta LH



12-18 urte

OROBIOGOITIA  
DBH eta Batxilergoa

Matrikula epea:  
otsailaren 2tik  
otsailaren 13ra

- Gune egokia
- Jantokia eta garraioa
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketak guztiak Iurretan

946 810 937 MAIZTEGI  
946 810 461 OROBIOGOITIA



## Txaletak eraikitzeke egitasmo batek eztabaida piztu du udalbatzarrean

EH Bilduk Kabilduosteko txaleten proiektua eteteko eskatu du udal bilkuran



Martitzeneko udalbatzarreko irudi bat, adierazpen bat irakurtzen daudela.

**DURANGO** Markel Onaindia 2005ean onartutako arau subsidiarioak eguneratzeko lana hasi zuten duela urte bi. Diagnostiko parte-hartzaile bat garatzea adostu zuten alderdiek, baina arkitektoen elkargo batek errekurritu egin zuen. Geroztik, etenda egon da ekimena. EH Bilduk (Bildu eta Aralar) berritoki ekiteko eskaera egin du mozio bidez, “espekulazioaren eta higiezinaren burbuilaren garaian onartutako arauak” indarrean daudela. Gainera, diagnostikoa egin

bitartean etxeen eraikuntza egitasmoak etetea gura du. Tartean, San Rokeko Kabilduoste eremuan hamabi txalet eta bederatzi etxe bloke eraikitzeke proiektua. Kabilduosteko lur-jabeek aurkeztu dute udalean, eta duela hil bi udaleko teknikari batek aldeko txostena egin zuela dio EH Bilduk. Etxebiden 2.000 durangar izena emanda daude, eta koalizioaren ustez, txaletak egiteak “ez dauka logikarik”.

EH Bilduk esan du legeak babesten duela proiektuak eteteko asmo hori. Horretaz zalantza agertu dute EAJk eta PSE-EEK, eta mozioa baztertu dute. EAJren iritziz, udalari kostu ekonomikoa ekarriko lioke. Bestalde, plan berriari ekiteko beharra nabarmendu du PSE-EEK.

## Alde Zaharreko hirugarren karkaba berrituko du udalak

**DURANGO** M.O.

Alde Zaharreko karkabak konpontzeko egitasmoan aurrera egingo du udalak, eta dauden sei karkabetatik hirugarrena berrituko du. Artekalea, Barrenkalea, Andra Maria eta udaletxearen artekoa izango da. Seguratasuna eta zerbitzuak hobetzea dira ekimenaren helburuak; hala nola, saneamendua berritu, ur edangarriaren hodia ipini, eta zoladura berrituko dute. 70.000 euroko aurrekontua gorde du udalak.

## Kulturgintza berbegai aurtengo Topaldian

Guztira, 70 bat lagun egon ziren atzoko topaketan

**DURANGO** Markel Onaindia Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, Topaldiaren XII. edizioa izan zen atzo Durango-ko Elkartegian. Kulturgintza izan da aurten aukeratutako gaia, eta horretaz berba egiteko hainbat hizlari etorri ziren. Guztira, 70 bat lagun batu ziren, eta Josune Ariztondo Kultura diputatuak ere parte hartu zuen topaketan.

Hiru atal izan zituen jardunaldiak. Lehena, kulturgintzak euskararen eta euskaldunon komunitatearen garapenean

daukan garrantziaren ingurukoa. Bigarrena, tokiko eragile euskaltzaleek kulturgintzan duten egitekoa aztertzeari buruzkoa. Eta hirugarrena, eragile euskaltzaleen adibideak kontatze aprobetxatu zuten.

Topaguneak antolatuta, Topaldiaren XII. edizioa garatu zuten atzo, Durango-ko Elkartegian



Atzoko jardunaldiko mahai-inguruetako bat.

## 2015erako aurrekonturik ez egotea salatu du EH Bilduk

EAJri lau “eskaera etiko” egin dizkio EH Bilduk



EH Bilduko Dani Maeztu, Eider Uribe eta Iker Urkiza, prentsaurrekoan.

**DURANGO** M.O.

Otsailean sartzear gaudela, oraindik 2015erako udal aurrekonturik ez egotea kritikatu du EH Bilduk (Bildu eta Aralar). Prentsaurrekoan azaldu dute gobernu taldeak ez diela proiekturik aurkeztu. EH Bilduko kideen ustez, “arduragabekeria da aurrekontu berririk barik jardutea”. Aurten aurrekontu proiektua udalbatzarretik pasa ere ez dela egingo sumatzen dute: “Hauteskundeak daude, eta gobernu berriari sekulako *marroia* utziko dio EAJk: zortzi

milioiko zorra eta aurrekontu luzatu bat”.

Koaliziokoek adierazi dute aurrekontu bat onartzeko prest daudela, baina lau “eskaera etiko” egin dituzte: udalaren egoera ekonomikoaz jardunaldi publiko bat egitea, lur ondareko etekina alokairu publiko sustatzeko erabiltzea, 2015eko lehen hiruhilekoan Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren berrazterketa parte-hartzailea hastea eta udaleko liberazioen soldatak %40 bajatzea –urteko 54.000 euro kobratzen dute–.

## Jose Mari Andresek ordezkatu du Natxo Martinez

**DURANGO** M.O.

Martitzeneko udalbatzarrean, udal ordezkariak gogoan izan zuten urtarrilaren 11n hildako Natxo Martinez EAJko zinegotzia, eta minutu bateko isilunea egin zuten. 1999az geroztik udalean zegoen Martinez, eta Jai Batzordeko ardura izateagatik zen ezaguna, batez ere.

Omeneko isilunearen ostean, Jose Mari Andres Ibañez de Garayok hartu zuen Martinez ordezkatzeko kargua,



JOSE MARI ANDRES

eta ardurak bere gain hartu zituen. Aitziber Irigoras alkateak aurreratu duenez, Jai Batzordean, ostera, Iker Ocejak hartuko du erantzukizun handiena.

Andres 2003-2007 legegintzaldian ere izan zen zinegotzi, eta merkataritza arloko ardura eduki zuen.

**URTXINTXA**  
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

katerin  
ardoak  
iñaki  
uribe



Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

[saltzan.com](http://saltzan.com)





## Andra Mari ikastola, Zornotza

2015eko irailerako bigarren hezkuntzako eraikin berria prest izango da

Aurten aldaketa eta berrikuntza garrantzitsuetan murgilduta gaude. Agerikoa da hori, Zornotzako Larrea auzora hurbildu, eta ikastolari begiratua eginez gero: bai, hala da, eraikin berria egiten ari gara.

Andra Mari ikastola handitzen dabil, eta ahalik eta jende gehienari eskaini nahi diogu hezkuntza-ibilbidea gurekin batera egiteko aukera; horrenbestez, handitzeko garaia heldu zaigu.

Ondoko argazkietan ikusten duzuen bezala, egungo eraikinari bigarren hezkuntzako eraikin berria erantsi diogu.

Gaur egun lanetan gabilta, eta 2015eko irailean, ikasturte berriarekin batera, ikasle, guraso eta langileok, nahiz familia eta ikasle berriek eraikinaz disfrutatu ahal izango dugu.

Garai berria dator, eta egiturazko aldaketa dakar berarekin. Aspalditik ikastolako irakasleak berritzen eta prestakuntzan eguneratzen jardun ondoren, orain egoitza eraberritzeko mementoa heldu zaigu.

Kontuan izan behar da Europar Kooperatiba osatzen dugun ikastolen mugimenduak urtetan landutako eskaintza pedagogiko eta metodologiko propioa lantzeko baliabideak hobetzen joateko

lan handi-handiaren alderdirik ikusgarriena baino ez dela eraikin berria.

Umeak lasaiago egongo dira geletan, espazio askoz handiagoa edukiko dugu ikastola osoan, baina, horretaz gain, baliabide berrietara hobeto hurbiltzeko lekua ere izango dugu.

Hala ere, eraikin eder eta ikusgarri hau, hainbeste aukera emango diguna, ez da Andra Mari ikastolak eskaintzen duen onena: onena gure metodologia, gure ikasle eta irakasle gazte, ausart, prestatu eta prestuak dira.

Ikastolan dugun eskaintza

**Ikasleenganako konfidantza oinarrituta, kalitateko euskal hezkuntza aurrerakoian dihardugu**

0-18 urte bitartekoa da (Durangoko Ibaizabal ikastolako batxilergoan baitu jarraipena Andra Marín hasitako ibilbideak).

Eskaintza metodologiko eta pedagogiko propioa dugu, geure ikerketa- eta garapen-taldearekin. Hain zuzen, gure metodologiak ikasleei laguntzen die ikastolako hezkuntza-prozesuan, hasi eta amaitu arte.

Gurasoak ikastolako bazkide kooperatibista dira, eta familiek eta ikastolak bat egiten dugu, denon artean, lantaldean, ikasleak hezten. Horretarako, ikastolako egunerokotasuna ez da gelan gelditzen, kanpo ekintza mordoa antolatzen baititugu, denak elkarlan eta elkarbizitza egokian oinarrituta, denok baikara ikasleen eredu. Horren adibide: guraso ordezkariak, San Tomas azoka, aitita-amamei omenaldia, haur jaioberrientzako masaje ikastaroak, elikadura osasuntsua lantzeko ikastaroak (Basque Culinary Center) eta abar.

Ikasturte honetan, esate baterako, haurrentzako masaje ikastaroa eskainiko dugu otsailaren 3tik martxoaren 3ra. Saiok astean behin izango dira, astearteetan, 18:00etatik 19:30era. Ikastaro horiek, zehazki, 0 eta 3 urte bitarteko umei zuzenduta daude. Ikastolako bazkidea zein bazkide ez dena etor daiteke, eta doako eskaintza da. Interesa edukiz gero, ikastolara deitzea baino ez duzu.

Umeenganako eta gazteenganako konfidantza oinarritutako guraso eta irakasleen elkarlanari esker, egunero-egunero eraikitzen den kalitateko euskal hezkuntza aurrerakoian dihardugu.



Sarrera nagusia naturaren parte.



Eraikina lurzoruari egokituta.

Matrikulazio epea  
otsailaren 2tik 13ra, biak barne.

**www.zornotzaikastola.eus**  
**zornotza@ikastola.net**  
**946 732 950**

Larrea auzoa z/g, 48340, Amorebieta-Etxano

**0-18 urte**

**Hazi eta Hezi Gurekin**

**ANDRA MARI**  
*ikastola*

**Aurrematrikula datak:**  
**Otsailaren 2tik 13ra**  
(biak barne)

**0-18 urte bitarteko eskaintza!**

Tel.: 946 732 950  
[www.zornotzaikastola.eus](http://www.zornotzaikastola.eus)  
**ZORNOTZA**



# Asiako liztorrarenak diruditen bi habia aurkitu dituzte Etxanon

Hontza Durangaldeko Natur Zientzien Museoko arduradunek aurkitu dituzte



Asiako liztorrak Etxano auzoko zuhaitzean.

**IZURTZA** Joseba Dertenao Mañariko Hontza museoko arduradunek Asiako liztorrarenak diruditen erlauntz bi aurkitu dituzte Izurtzako Etxano auzoko zuhaitz bitan. Hontzako

arduradunen esanetan, “mu-seoa beharrezkoak diren agintariek hartu-emanetan jarriko da, habia horiek kendu ditza-ten”. Izan ere, erleak dira Asia-ko liztorraren elikagai nagusi,

eta erleak mantentzeko “beha- rrezkoa da Asiako liztorrari aurre egitea”, adierazi dutenez.

Gipuzkoan oso zabalduta daude Asiako liztorrak, eta apurka Bizkaian sartzen dabil- tza. Izurtzako Etxano auzokoa ez da Durangaldeko kasu baka- rra. Iaz Iurretako suhiltzaileek hainbat irteera egin zituzten Asiako liztorren habiak zirela- eta: Durangoko Tabirabide ka- lean, Iurretan, Berrizen, Zaldi- barren eta Atxondon —igerile- kuen parean eta Arrazolan— agertu izan dira mota honetako liztorren habiak.

Pertsonentzat ez ei dira oso arriskutsuak; ziztada asko jaso behar dira kalte egiteko. Baina kontuz ibili behar da, pozoia jaurtitzen dutelako. Habia bat ikusiz gero, Base Gorrikoei edo suhiltzaileei deitu behar zaie.

## Hamar lagun aurrera idazkaria hautatzeko prozesuan

**MAÑARIA** Amaia Ugalde Mañariko eta Izurtzako idaz- kari kontu-hartzaile kargura- ko 40tik gora lagunek eman dute izena, eta lehenengo az- terketa egin dute dagoeneko. Hamar lagunek gainditu dute azterketa hori, eta eurek egin- go dute aurrera hautaketa pro- zesuan. Hurrengo azterketa otsailaren 6an edukiko dute.

Urritik daude idazkari kon- tu-hartzaile barik, eta Endi- ka Jaio Mañariko alkateak Aldundia kritikatu du. Izan ere, Aldundiak du lanpostu hori betetzeko ardura. “Egoe- ra txarrean gaude, Aldundiak ez daukalako lan-poltsa bat”, esan du Jaiok. Horren adibide da idazkari kontu-hartzaile- a ezarri arte ezingo dutela 2015eko aurrekontua onartu.

## Diru-laguntzek ez dituzte inbertsioak baldintzatuko

Soberakinak malgutasuna eskainiko dio udalari

**OTXANDIO** J.D. Eguaztenean kultur etxean egindako herri batzarrean, Santi Uribe alkateak 2015eko aurrekontu proposamena azal- du zuen. Iazko likidazioa ia amaituta dago, eta egunean udalbatzarrera deitu gura dute, aurrekontuak eztabaidatzeko.

Likidazioa ez dago amaituta, baina badakite 50.000 euro inguru- ruko soberakina egongo dena. Gainera, aurten 192.633 euro izango dituzte inbertsioetara- ko. Sarrerak 1.556.303 eurokoak izango direla kalkulatu dute, eta gastuak 1.363.670 eurokoak; kopuru bien arteko aldea da inbertsioetarako geratzen de- na. Horiek horrela, “aurreko urteetan esan izan dugu diru-la- guntzen menpeko inbertsioak izango zirela, baina aurten ez da

horrela izango”, adierazi zuen Santi Uribek.

Inbertsioetako bat plazako eraberritze lanak dira, 300.000 euroko kostuagaz. Horietatik 200.000 Eusko Jaurlaritzako di- ru-laguntzaren bidez estaliko dituzte; beste 95.000 Aldunditik jasotzen saiatuko dira: “Iaz gu- re eskaerari ezetz esan zioten, baina badakigela uste dugu”. Nahiz eta azken laguntza hori lortu ez, “aurrera egingo dugu, badakigu eta soberakina egon- go dena”. Berdin eskolako bio- masa galdaragaz. Jaurlaritzatik 104.000 euro jasotzea espero du udalak, eta Bizkaiko Foru Al- dunditik eta Energiaren Euskal Erakundetik 50.000 euro inguru- ruko laguntza bana. Laguntza nagusiak huts egiten ez duen bitartean aurrera egingo dute.

## Egoitza zabaldu du ezker abertzaleak Traña-Matienan

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Joan zen barikuan Abadiño- ko ezker abertzaleak egoitza zabaldu zuen, Traña-Matie- nako San Prudentzio kaleko 2. zenbakian. 30 lagun inguru elkartu ziren inaugurazio ekitaldian, herritarrek zein hautetsiak. Egoitza edozein ekarpen edo galdera egin gura duten abadiñarrei zabalik egongo dela azpimarratu zu- ten. Inaugurazio ekitaldian azaldu zuten, otsailetik aurrera eguaztenean egongo dira ezker abertzaleko ordezkariak bertan, 18:00etatik 19:30era, gerturatzen diren herritarrei harrera egiteko.

Maiatzeko udal eta foru hauteskudeei begira, joan zen zapatuan egin zuen ezker aber- tzaleak herri programa zehaz- teko lehenengo herri batzarra.

## Urtebetez luzatuko dute kontratua Cespagaz

**ABADIÑO** I.E. 2010. urtean erabaki zuen Aba- diño Udalak Traña-Matiena auzoko kaleen eta industria- guneen garbiketa lehiaketa publikora ateratzea, eta lau urterako esleitu zion zerbitzu hori eskaintzeko baimena Ces- pa SA enpresari. Abadiño Udal Independentek taldeak eta EAJk esleipen hori beste urtebeterako luzatzearen alde bozkatu zuten. Erabaki horren kontrako jarrera agertu zuen, aldiz, Bilduk. Lau urterako egin zuten 2011. urtean esleipe- na, eta kontratua beste bi urtez luzatzeko aukera adostu zuten. Jose Luis Navarro alkateak udalbatzarrean azpimarratu zuen, datorren urtean erabaki- ko dutela zerbitzu hori berriro lehiaketara atera edo ez.

### SEI HANKAKO MAHAIA

JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE

PP



### Iruzurrik gabeko languntzak

Immobilismoa, dena bere horretan uztea, eztabaida- rako eta ideiak alderatzeko aukerari muzin egitea... Badirudi jarrera hori dela euskal politikari gehienek artean nagusitzen dena; izan ere, besoak gurutzatuta geratzea da errazena. Baina garrantzi biziko gai batean bete-betean ez sartzea da hori: gizarte laguntzek benetan beharrezkoak direnengana heldu behar dute, iruzurrik gabe.

Hori da Alderdi Popula- rrek Euskadin izan duen planteamendua, eta, ematen duenez, bat baino gehiago lotsagorritu duena. Ikusi nahi ez duena baino itsu handia- gorik ez dagoela esan ohi da, eta hemen dugu horren adibide argi bat. Juan María Aburtok, gaiari dagokion sailburuak, laguntza siste- ma berriz planteatu behar dela dioen arren, bere alder- ditik kritika gogorrak heldu dira, ezer ez dela berriro aztertu behar adieraziz; hau da, gauden bezala geratzeko eskatuz.

Nire ustez, guztiz abia- puntu okerra da hori. *Estatu quoa* mantentzeak esan nahi du desparekotasuna betiketzea baimenduko du- gula politikariok, eta herri- tar batzuek laguntzetara jo ezin duten bitartean, lotsa gutxi duten beste batzuek sistemari probetxua aterako diotela. Norberak jakingo du zergatik sartu zen politika- ren munduan, baina beste albo batera begiratzea eta eztabaidarako aukera baz- ter uztea sekula ez dira bat etorri Alderdi Popularraren jarrerarekin. Gauzak alda- tzeko adorea behar da; kon- trakoa, dagoenarekin etsia hartzea da.

\*Erredakzioan itzulita

**MACOBER**  
Tronperri kalea, 1 DURANGO  
Zeramika eta gresa

**GALLASTEGI**  
www.gallastegiharategiak.com  
1955ean sortua

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR

**EUSKO LABEL**

Baimendutako harategia  
Euskal Okela  
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO



## Diru-sarreraren Berme Errentaren alde, mozioa

EAJk, Bilduk eta PSE-EEk adostu dute testua



Gizarte babesa "inbertsio gisa" sendotu beharra nabarmendu dute.

**DIURRETA** Amaia Ugalde Gizarte babeserako laguntzen gaian "marra gorri bat" jarri guran, mozio bat adostu dute Iurretako EAJk, Bilduk eta PSE-EEk. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) dela eta, azkenaldian, Euskal Herrian, eta bereziki Gasteizko Udalean, izandako eztabaiden harira etorri da testua. DBEren eskabideetan iruzurrak saihesteko, PPko Nacho Tocak Gobernazio Batzordean eskatu zuen Iurretako erroldak "zorroztasunez" kontrolatzeko, eta, eztabaiden ostean, gainontzeko alderdiek mozioa adostu zuten.

Testuan azaldu dutenez, "eskubide sozialak murriztearen aurka, eta pobrezia eta kohesio

soziala hobetzearen alde" agertu dira zinegotziak. Gizarte babesa "inbertsio gisa" sendotu beharra nabarmendu dute: "Eztabaidan jarri nahi dutenen aurrean, ukiezina dela diogu". Iruzurren kontra, udaleko gizarte-zerbitzuek Lanbidegaz kontrolak hobetzeko konpromisoa ere bildu dute mozioan.

**PP, mozioaren kontra** Eguazteneko osoko bilkuran onartu zuten mozioa. PPko Nacho Tocak ez zuen testuaren lanketan parte hartu, eta bera izan zen kontra bozkatu zuen barikarra. Eguaztenean kontrol neurrien premia nabarmendu zuen: "Laguntzen kudeaketan justizia gehiago behar da".

## Bellon hil zela urtebete beteko da eguenean

Espetxe politikaren kontrako ekitaldira deitu dute

**ELORRIO** Markel Onaindia 2014ko otsailaren 5ean hil zen Arkaitz Bellon preso elorriarra, Puertoko (Cadiz) kartzelan zela. Autopsia bi egin zizkioten, eta heriotza naturala izan zela ondorioztatu zuten. Baina senide eta lagunek Espainiako Gobernuaren espetxe politika jo zuten errudun: "Hamahiru urte luze hauetan erail dute krudelkeria neurtu eta sistematizatu baten bidez", adierazi zuten prentsaren aurrean. Hiru bat hilabete geratzen zitzaizkion hamahiru urteko kartzela zigorra betetze-

ko, kale borroka ekintza batzuetan parte hartzeagatik. Bellon hil eta hurrengo egunetan manifestazio jendetsuak egin zituzten Elorrioren.

Bellonen kasuaz gainera, hemezortzi urte beteko dira otsailaren 7an Jose Mari Aranzamendi *Katxue* preso hil zela. Testuinguru horretan, Espainiako kartzela politikaren kontrako ekitaldira deitu du lagun talde batek hurrengo barikurako. *Espetxe politika kriminalari stop* lelopean egingo dute ekitaldia, 19:30ean, plazan.

## Korrika Batzordea eratzeko batzarra otsailaren 4an

Korrika martxoaren 23an pasatuko da Mallabitik

**MALLABIA** Jone Guenetxea Mallabiko Korrika Batzordea sortzeko batzarra deitu dute otsailaren 4rako, arratsaldeko 19:00etan, kultur etxean. Bilaren helburua da herritar guztiei Korrika 19 aurkeztea. Besteak beste, batzorde horrek Mallabiko Korrika Kulturalaren egitarauko ekitaldiak antolatuko ditu. Era berean, Korrika bera antolatuko dute. Batzarraren deitzaileek Mallabiko elkarte eta herritar guztiak ekimenean parte hartzera gonbidatu dituzte.

**Urepeletik Bilbora** Aurten, Korrika Urepeletik abiatuko da martxoaren 19an, eta Bilbon izango du helmuga, martxoaren 29an. Bidean, Korrikaren lekukoak Euskal Herri osoa zeharkatuko du.

Elgetatik Elorriora sartzeagaz batera helduko da Durangaldera. Martxoaren 23an, astelehena, ailegatuko da Korrika Elorriora, 13:05ean. Ondoren, Durangaldean hainbat kilometro egingo ditu, eta Mallabira 16:15ean helduko da. Gero, Ermutik Eibarrera irtengo da.

> DURANGALDEA ASTEON

### Hassana Aalia babestu du udalak

**DURANGO** > Udalak aho batez babestu du Hassana Aalia ekintzaile gazte sahararra. Euskal Herrian errefuxiatuta dago Aalia, eta Espainiako Gobernuari babes eskaera egin dio. Izan ere, Marokoko auzitegi militar batek biziarteko kartzela-zigorra ezarri zion. Baina Espainiako Gobernuak babesa ukatu berri dio.

### Durango Txartela: balorazio positiboa

**DURANGO** > Herriko merkataritza bultzatzeko, Durango Txartelaren bigarren edizioa izan dute martxan Gabon hauetan. Asteon kanpaina horren balorazio oso positiboa egin dute Iker Oveja merkataritzako zinegotziak eta Dendak Bai elkarteak. 2.000 txartel saldu dira aurten, eta 77 dendak hartu dute kanpaina parte.

### Hainbat 'master class', kiroldegietan

**DURANGO** > Durangoko kiroldegietan hainbat *master class* -adituek eskaintako eskola- egongo dira datozen hilabete bietan. *Spinbike*, *bodyweight*, *stretching* eta *cross-training* modalitateen artean aukeratu ahal izango dute partaideek. [www.durangokirolak.net](http://www.durangokirolak.net) webgunean dago egun eta orduetako buruzko informazioa.

### Hitanoka eta agur mingotsa

Atsegin jat benetan hitanoka entzutea. Adurrak urtetan deust hori jazotzen danean. Nagusi askok zelako erraztasunez erabiltzen daben, eta baita, oraindino, herri txiki batzuetan, hain nagusi ez diranek ere.

Begiak itxita ere badakizu entzuten dauana emakume ala gizakume dan, etxekotasun lako bat dagoala... Aberatsa da, ezbai barik, nire ustez behintzat, hizketako era hori.

Lagun bategaz baino gehiagok egiten dot hika, nahiz eta ez izan nik erraztasun larregirik eta nahiko traketsa izan. Behin ere egin ez dodana, ostera, noka erabiltzea da. Emakume guztiekin zuka jarduten dot beti.

Gauza guztietan salbuespenak izaten diranez, honetan ere salbuespena, bat bakarra, izan da nire jardunean. Ni baino zati bat gazteagoa zan neskatila jator bat hika egiten hasi jatan. Bidezkoa

zanez, neu ere noka hasi nintxakon, nahiz eta zailtasun apur bategaz.

Baina, azken aldietan, inoiz alkar ikusten bagenduan, ohitura horregaz ahaztuta egoalako edo nigan erraztasun larregirik ikusten ez ebalako, zuka egitera igaro zan.

Lehengora pasatzeko esateko nengoan hurrengoan ikusiko nebanean, baina ezin izan da izan.

Lur jota eta negarrez itzi ditu ez etxeakoak bakarrik, bai hainbat eta hainbat adiskide, ikasle, lagun... Bilbo aldean bizi izan dan Arrazolako Belen Olaetxea Unzuetaeren heriotzak. Zer eta zenbat galdu daben hainbestek eta baita gure kulturak eta hizkuntzak ere.

Lerro txatxar honek hartu egizan, Belen, omenaldi apalena lez. Hire eta nire fedea haxe esatera bultzatzen naion: Egun Handira arte! Orduantxe ikusiko jonau danok alkar, zoriontasun betean.

Juanito Gallastegi

**Iritzia**



**astekaria@anboto.org**  
asteartea 17:00ak arteko epea

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea  
• Nortasun Agiriaren zenbakia

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



## **➤ Berbaz**

**Koldo Katxo** | Jesuita | Tuter (Nafarroa), 1957

# “Hazia erein dugu hartu-emanan izan dadin erlijio guztien artean”

Tabira pastoraletako Koldo Katxo jesuitak Durangaldeko erlijioen arteko topaketan jardun du

**> BERBAZ** *Jone Guenetxea*  
Munduko Bakearen eta Bortizkeria Ezaren Nazioarteko Egunean, Gandhiren hilketaren urtemugan, Tabira pastoral barrutiak Bakearen Domeka antolatzen du urtero. Aurten, erlijioen arteko elkarbizitzan sakondu gura izan du.

Bakearen Domeka berezia antolatu duzue aurten, beste erlijio batzuetako ordezkariekin. Munduko Bakearen eta Bortizkeria Ezaren Nazioarteko Egunean, Gandhiren hilketaren urtemugan, Tabira pastoral barrutiak ekimen hau antolatzen du urtero. Aurreko urteetan gure inguruko bake eta bortizkeriaren inguruko gaiei heldu diegu. Sufirimendu politikoaren testigantzak izan dira. Euskal Herriko egoera bake eta justiziagaz batera zelan zuzendu landu dugu. Elizaren inguruko jendeagaz egin dugu hori. Bestalde, erlijioaren izean historian krudelkeria asko egin izan dira. Baina, gaur egun ere, erlijioa aitzakia hartuta, zibilizazioen arteko talka egin nahian dabilta. Erlijio erakunde guztietakook egin behar dugu hausnarketa, azterketa eta aldaketa. Horregatik pentsatu dugu Durangaldean dauden zenbait erlijio tradizio elkartu, eta ekimen hau antolatzea.

**Durangaldeko zein erlijiotako ordezkariak bildu zineten?**

Nerea Basurto Durangon bizi den moja budista bat da, eta ekimenean parte hartu zuen. Era berean, kontaktuan jarri ginen kristau ebanjelikoekin, Ekuadorretik etorritako jendez osatutako kolektiboagaz. Eliza presbiterianoagaz ere bagenuen harremana –Ghanatik etorritakoak–. Islamak ere Durangaldean presentzia handia dauka, eta erlijio horretakoak ere gonbidatu genituen. Denak etorri ziren, eliza ebanjelikokoak izan ezik.

**Ospakizuna zelan joan zen?**

Ekitaldiaren hasieran senegaldar batek azaldu zigun islama eta kristautasuna errespetu handiz bizi direla bere herrian. Ondoren, Durangaldeko meskita bateko imanak hitza hartu zuen. Islama eta korana bakezaleak direla adierazi zuen. Ildo horretatik, terrorismoa salatu eta gaitzetsi zuen. Moja budistak azaldu zigun budismoak nola ulertzen duen bakea, eta otoitz egin zuen. Eliza presbiterianotik artzaina etorri zen, eta Ghanan bakea nola ulertzen duten azaldu zigun. Peio Bakaikua marista Ekuatore Guinean eta Txaden egon da misolari, eta bakeaz Ebanjelioaren ikuspegitik hausnartu zuen. Pantxoa eta Peioren *Bakemina*



abestia azaldu zigun, eta denok abestu genuen.

**Denek elkarrekin keinu bi egin zenituzten amaitzeko.**

Eliza barruan izan zen lehenengo. Erlijio bakoitzeko ordezkariok bakearen lorearen haziak ontzi batean erein eta goratu genituen. Denok zaindu behar ditugu bakearen aldeko haziak, batzuetan erraza ez izan arren. Eta bigarren keinua kalera atera genuen. *Txoria txori* abestiagaz sokadantza bat egin genuen, eskutik lotuta. Espiral hori barrutik kanporantz ere egin genuen, Josean Artzeren “bakez bizi denak bakez kutsatzen ditu denak” aipua aldarrikatuta. *Agur jaunak* abestiagaz eman genion amaiera ekitaldiari.

**Ekimen honek jarraipenik izango du?**

Hau hazi bat izan da, hartu-emanan izan dadin gure artean. Gustatuko litzaziguke aurrera begira zerbait egitea Durangaldean. Hasiera bat dela esango nuke, eta onuragarria da.

**Orokorrean, badago hartu-emanik erlijioen artean?**

Elkarren arteko ezagutzak eta erakundeen arteko harremanek lagundu behar digute erlijioa

“**Benetako bakea sortzeko elkarren arteko ezagutza egon behar da**”

bizitzen XXI. mendean. Hainbat erronka ditugu, zientziaren eta modernitatearen aldetik. Honek guztiak lagundu behar digu go-goeta kritikoa egiten. Horretarako erlijioen eta erakundeen arteko topaketa oso garrantzitsua da.

**Hau guztia mundu mailan gertatzen dabilen bortizkeriagaz lotuta dago?**

Ezin da ahaztu Estatu Islamikoa ez dela mundu islamiko osoa. Era berean, erlijioa pertsonaren intimitatera heltzen da. Beraz, jakin behar dugu errespetatzen. Bestalde, Mendebaldean adierazpen askatasuna defendatzen dugu. Baina nire galdera da ea Mendebaldeak adierazpen askatasuna neurririk gabe defendatu behar duen. Gai honetan kontraesan handia dago. Parisko kaleetan hainbat buruzagi adierazpen askatasuna defendatzen ibili ziren, eta beraien herrialdeetan, adierazpen askatasun

eza dela-eta, jendea kartzelan dago edo egunkariak debekatu izan dituzte. Ildo horretatik, erlijioa arma bat izan daiteke, Ekialdean ikusten dugun moduan. Horregatik da elkarbizitza hain garrantzitsua, erlijioa gerra egiteko aitzakia izan ez dadin.

**Aniztasunak jende askori beldurra ematen dio?**

Desberdinak beldurtzen gaitu, eta deseroso sentiarazten gaitu. Aniztasuna ez da erraza, baina aniztasuna txarto kudeatzen badugu eta elkarren arteko errespetua txarto kudeatzen badugu, ondorio latzak izango ditu. Paris-ko kasuan, oraintxe dabilta konturatzen jihadistak gehienak bertan jaiotakoak direla, frantziarrak direla. Zer tratatu izan duten, zelako ghettoetan bizi izan diren... Hemen ere kontuan hartu behar dugu hori. Elkarren arteko ezagutza, besteari aurpegia jartzea eta besteen duintasuna onartzea ezinbestekoa dira elkarrekin benetako bakea sortzeko. Horretarako, ikusi behar dugu nola mantendu tradizio bat egoera soziolinguistikoa eta identitarioa geroz eta pluralagoa den herri honetan. Horregaz batera, ikusi behar dugu anitzaren maitale nola izan, elkarrekin kulturarteko giroa sortuta.





# JAIIAK!

## San Blas

2015eko OTSAILA | ABADIÑO



Abadiñoako Udalak  
zoriontsuak opa deusuez

[www.abadiño.org](http://www.abadiño.org)



**Abadiño**

Elizateko Udala



# SAN BLAS JAIEN EGITARUA

## URTARRILAK 30 BARIKUA

**19:00** San Blas 2015 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketea.

**21:00** Bertso afaria: Etxahun Lekue eta Iker Zubeldia, Gaztañodi elkarteak. Txartelak Petite liburu denda eta Abarkateruenean salgai.

**24:00** Kontzertua, txosnagunean:  
DJ Ima Txil Aut  
DJ Jon Frazier

## URTARRILAK 31 ZAPATUA

**17:00** Ipuin kontalaria: Enaitz, Txanporta kultur etxean. Gonbidapenak urtarrilaren 26tik eskuragarri Udal Mediatekan (gonbidapen bi pertsonako, goitik jota).

**18:00** Kalejira Sapali txarangagaz.

**22:30** Kontzertuak, txosnagunean:  
Bastards on Parade  
Joxe Replay

## OTSAILAK 1 DOMEKA

**09:00** Abadiño Auzorik Auzo ibilaldia. Irten Gerediagako basilizan, eta amaitu 13:00-13:30ean Txanporta plazan. Irteeran argazki bat egingo zaio ibiltarien talde osoari. Hamabi Harri auzo elkarteak antolatuta.

**10:30** San Blas 2015 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketea.

## OTSAILAK 3 MARTITZENA SAN BLAS EGUNA

**AZOKA** Ganadua, baserriko tresneria, burdineria, ortuariak, frutak, gaztaia, txakolina, ogia, ezta, artisautza produktuak eta landareak.

XXIII. Abelburu Erakusketa.

**09:00** Txanbolin taldeko txistularien kalejira.

**11:00** Meza nagusia, San Trokaz elizan.

**11:30** San Blas 2015 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketea.

**12:00** Bertsolariak, Ferialeku plazan: Txaber Altube, Xabier Amuriza eta Eneko Abasolo 'Abarkas'.

**12:30** Herri kirolak, probalekuan:  
- Aizkolariak: Bihurri, Olasagasti, Larretxea eta Mendieta.  
- Harri-jasotzaileak: Joseba Ostolaza eta Idoia Etxeberria.

**17:00** Idi probak.

**17:00** Erromeria, Ferialeku plazan: Lotxo taldea.

**22:00** Idi probak.

## OTSAILAK 4 EGUAZTENA SAN BLAS TXIKI EGUNA

**19:30** Abadiño Done Zezili abesbatzak Santa Agedaren koplak abestuko ditu kalerik kale.

## OTSAILAK 6 BARIKUA

**18:15** San Blas 2015 Pilota Txapelketako finalak, eskuz, Tornosolo trinketea.

**22:00** Idi probak.

## OTSAILAK 7 ZAPATUA

**18:00** Il Duo Cannelloni familia ikuskizuna, Txanporta kultur etxean. Gonbidapenak urtarrilaren 26tik eskuragarri Udal Mediatekan (gonbidapen bi pertsonako, goitik jota).

**22:00** Idi probak.

## OTSAILAK 8 DOMEKA

**12:00** Mendi martxa familiarra, Zelaietako eskoleatik hasita. Euria bada, herri kirolak pilotalekuan.

**14:30** Txixi-burduntzi egingo dute, Solozabal kalean.

**17:00** Erromeria Etzilimo taldeagaz, Solozabal kalean.

**18:00** Idi probak.

## OTSAILAK 9 ASTELEHENA

**17:00** Idi probak.

**22:00** Idi probak.  
Ondoren, sari banaketa.

## OTSAILAK 14 ZAPATUA

**10:00** XXVII. Burduntziko Bildots Txapelketa. Txakoli erakusketa.

**14:00** Bildots bazkaria probalekuan.

**\*OHARRA**  
Otsailaren 20tik martxoaren 6ra, San Blas 2015 argazki lehiaketako argazkiekin osatutako erakusketa Errota kultur etxean.

**ORDUTEGIA**  
Astegunetan: 09:00-20:00  
Larunbatetan: 10:00-14:00

Ondo pasan sanblasak!



639 346 506  
info@bagoaz.com  
www.bagoaz.com

Bagoaz bidaiak itxita egongo da San Blas egunean

**SERRATU, S.L**

GALDARAGINTZA  
ETA ITXIERAK



gure bezeroen zerbitzura

Astola, 48 48220 ABADIÑO / Bizkaia  
Tel.: 946 201 837 - Faxa: 946 818 635 - serratu@serratu.com  
www.serratu.com



# Nekazarien 88 saltoki atonduko dituzte San Blas azokan, sasoiko ortuari freskoekin

Ohi bezala, artisauek, haztegiek zein abeltzainek parte hartuko dute otsailaren 3ko azokan

## > AZOKA Itsaso Esteban

Abadiñoako Udalak jakinarazi duenez, 79 baserriatik eramandako ortuariak egongo dira datorren martitzeneko San Blas azokarako BBKren laguntzagaz atonduko dituzten 88 postuetan.

Ehunka bisitari espero dituzte otsailaren 3ko San Blas azokan. Urtero bezala, askotarikoa izango da baserriarrek Abadiñoako azokan egingo duten eskaintza. Besteak beste, ortuariak eta frutak ipiniko dituzte azokako bederatzi erakusmahaitan salgai; ogia eta euskal pastela beste hamazazpitan; gazta hamaseitan; eta sagardoa eta txakolina azokako beste zazpi postutan. Gainera, urtero bezala, Euskal Herriko nekazariak ekoitziriko ezta, arrautzak, jogurtak eta kontserbak ere eskuratu ahalko dira San Blas azokan.

Bestalde, Arbaso elkartegaz landuriko artisautza azoka ere antolatu dute datorren martitzeneko. Artisauen azokan hogeita sei sortzaileren lana egongo da erakusgai, eta horietako sei postutan, gainera, Durangaldeko artisauen lanak egongo dira salgai.

**XXIII. Abelburu Erakusketa** Bertako abeltzainek ere leku berezia izango dute Abadiñoako San Blas azokan. Erakusketa eta salmentarako eramango dute ganadua inguruko larre eta ukuiluetatik Zelaieta auzoan egingo den azokara. Txaroles, Limousin eta piriniotar arrazako behiak eramango dituzte, besteak beste. Baserriarren elkartek, bestalde, hainbat arrazatako behiez gainera, ardiak, pottokak eta astoak ere eramango ditu, esaterako.

Hamabi landare haztegiek ere ipiniko dituzte euren postuak sanblasetan: adibidez, sagarrondoak eta kiwi-arbolak, zein bestelako landare eta haziak erosteko aukera eskainiko dute otsailaren 3an.

Nekazaritzan lan egiteko makinaria salgai ipiniko duten 23 erakuslek ere parte hartuko dute martitzeneko hitzorduan.

**Eskualdeko sei artisauren lana izango da eskuragai San Blas eguneko artisautza azokan**

**Ortuari eta frutez gainera, nekazariak ekoitziriko hainbat produktu ere ipiniko dituzte salgai**



Ortuariak eta frutak ipiniko dituzte azokako bederatzi erakusmahaitan salgai.



Hainbat arrazatako behiez gainera, ardiak, pottokak eta astoak ere erakusgai ipiniko dituzte.



**EROSKI**  
zurekin

01/29tik 02/11ra arte.  
Frutategian, harategian,  
arrandegian eta  
okindegian 01/29tik  
02/04ra arte.

urtarrilaren  
**29tik**  
aurrera



**LA ESPAÑOLA**  
Oliba-olio  
birjina, L 1  
Unitatea 4,09€

PSP 2. unitatea  
**1,23€**

2 unitate: 2,66€/L

2.alea  
**%70**



**GULLÓN**  
Urre galleta,  
800g  
Unitatea 2,15€  
2,66€/kg

PSP 2. unitatea  
**0,64€**

2 unitate: 1,75€/kg

2.alea  
**%70**



> ARGAZKILARITZA M.O.


San Blas jaietako argazki lehiaketaren bosgarren edizioa antolatu dute aurten. Jaiaz gozatze-ko eta aldi berean bertako ekin-tzak jasotzeko proposamena da udalak egiten duena. Izan ere, argazkilarien begietara interes-garri izan ahal diren irudiak eskaintzen dituzte otsailaren 3ko feriak eta horren bueltako egunetan antolatzen diren ekin-tzek. Partaideek otsailaren 13ra arteko epea edukiko dute lanak aurkezteko. Jaia irudi ederre-nean islatzen duenak 400 euro poltsikoratuko ditu, eta bigarren lan onenaren egileak 250. Gainera, herriko argazkilari onenarentzat 150 euroko accesita gorde dute.

**Kolorez edo zuri-beltzean**

Argazki lehiaketako partaide bakoitzak argazki bi aurkeztu ahalko ditu gehienez. Koloretan edo zuri-beltzean, bietara onar-tuko dituzte epaileek; hori bai, originalak eta inon argitaratu bakoak izan beharko dute. Aurkezteko moduaren inguruan, hainbat ohar eman dituzte antolatzaileek: euskarri gogorrean aurkeztu behar dira, eta, gutxi gorabehera, 30x40 zentimetro-ko tamaina eta bi milimetroko sendoera eduki behar dituzte.

# 400 euroko saria sanblasak irudi ederrenean islatzen dituen argazkilariarentzat

Otsailaren 13ra arte egongo da argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea



lazko argazki lehiaketako irudi irabazlea.

Gainera, argazki bakoitzaren atzean titulua idatziko dute argazkilariak, eta inskripzio fitxa bereizitako gutunazal batean sartuko dute, horri ere argazkiaren titularen erreferentzia emanda.

Otsailaren 13an, 20:00etan, amaituko da lanak entregatzeko epea, eta Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan jasoko dituzte lanok.

**Onenak aukeratuko dituzte epaileek, eta herritarrentzat ikusgai ipiniko dituzte**

**Erabakia, 20an**

Lan guztiak jaso ostean, epai-mahaiak otsailaren 20an eman-gu du bere erabakiaren berri. Arratsaldeko 19:00etan egingo dute sari-banaketa ekitaldia, Errota kultur etxean.

Gainera, lehiaketara aurkeztutako lan onenak aukeratuko dituzte epaileek, eta herritarrentzat ikusgai ipiniko dituzte erakusketa batean. Hilaren 20tik martxoaren 6ra bitartean egongo da erakusketa, Errotan.

# Auzorik auzo Abadiñoako bazterrak ezagutzeko aukera

Ibilaldia Gerediagako basilizan abiatuko dute, domekan, 08:45ean



Irten aurretik familia argazkia aterako dute Gerediagako basilizan.

> **IBILALDIA** Jone Guenetxea

Hamabi Harri auzo elkarteak urtero antolatzen duen Auzorik Auzo ibilaldiak Gerediagako basilizan izango du abiapuntua, domekan. 08:45ean parte-hartzaileak familia argazkian batu eta gero, 09:00etan abiatuko dira Abadiñoako auzoak zeharkatzen dituen ibilaldia egitera. Aurten hiru ibilbide izango dira aukeran. Sasoian daudenentzat 19 km-koa prestatu dute, baina 15 km-koa eta 13 km-koa ere izango dira. Traña, Gaztelua, Zelaieta, Muntzaratz, Irazola, Sagasta eta Mendiola zeharkatuko dituzte.

Txanporta plazan jarriko dute amaiera puntua. Eguerdiko 13:30ean parte-hartzaile guztiak bertan biltzea da asmoa, luntxagaz indarrak berritzeko.

Antolatzaileek azaldu dute-nez, ibilbidean fruta eta salda

banatuko dute. Era berean, basorako jantzi eta oinetako egokiekina joatea gomendatu dute.

**Eguerdiko 13:30ean parte-hartzaile guztiak Txanporta plazako luntxean bilduko dira**

**Hamargarren edizioa**

Hamabi Harri auzo elkarteak hamar urte daramatza Auzorik Auzo ibilbidea antolatzen. Jaietako egitarauan finkatuta dagoen ekitaldietako bat da. Ekimenak iaz 300 lagun inguru bildu zituen, eta aurtengo ekitaldian ere kopuru horri eustea espero dute.

## JUAN BERISTAIN

NEKAZARITZARAKO TRESNAK  
Salmenta eta konponketa

HONDA
STIHL
SAME
pasqualli
VIKING
CARON
BCS

Berriozabalbeitia, 14 - Elorrio - Tel./Faxa: 946 231 803 - [juanberistain@telefonica.net](mailto:juanberistain@telefonica.net) • [www.juanberistain.com](http://www.juanberistain.com)



**Jose Antonio Odriozola** | Abadiño (Gaztelua auzoa), 1949 | Sanblasetako idi proben antolatzailea |

## “Idi probetan epaileak galtzadan gertatzen dena zaindu behar du, baina baita apustu giroa ere”

San Blas jaien harira, bost egunez egongo dira idi probak Zelaietako probalekuan

**> IDI POROBAK** J. Derteano

Jose Antonio Odriozolak sanblasetako idi probak antolatzeko ditu. 35 urte daramatza epaile lanetan, eta denetarik ikusi du; zikinkeria asko tartean. Ez du beldurrik denei buruz berba egiteko.

**Zenbat idi proba jaialdi daude aurtengo sanblasen harira?**

Bost egunetan egongo dira idi probak. San Blas egunean hiruna idi pare, 17:00etan eta 22:00etan; otsailaren 6an eta 7an, 22:00etan; hilaren 8an, 18:00etan; eta 9an, 17:00etan eta 22:00etan. Euskal Herriko onenak etorriko dira; maila goreneko bat bakarrik faltako da, beste guztiak Abadiñon izango dira.

**Epailea izan zara urte askoan. Hamaika kontu izango duzu.**

Bai, eta, zoritxarrez, asko tranpei lotutakoak. Esaterako, orain urte batzuk, Abadiñon, idi pare bat ezin zen zutik egon, eta kanpoan utzi genuen. Jabeak kontuak eskatu zizkidan, baina handik denbora batera positibo eman zuen Bakion. Dopin kontrolak Aldundiak kudeatzen

ditu, eta nik kontrolak areagotzeko eskatu gura diot, ahalegin berezi bat egin dezala. Baina, horretaz gainera, apustuei lotutako hamaika tranpa daude idi probetan. Gaur egungo epaileek ez dakite gauzak zelakoak diren.

**Zertan hobetu behar dute?**

Batetik ez dute ganadua eza gutzen. Bestetik, abereekiko tratu txarrak ez dituzte egoki bereizten. Esaterako, batzuetan, bi-hiru untzeren ostean, idiek hankak gurutzatu egiten dituzte, ez dute aurrera egin nahi, eta orduan idiei pare bat kolpe eman behar zaizkie martxan jartzeko. Hori zigortu egiten dute epaileek, eta ez nago ados.

**Beraz, noiz zigortu behar dute?**

Egia esango dizut: akuilatzaile batzuek euren akuilua jarrera jakin batean ipini, eta artekari batzuek apostuak aldatzen dituzte handik apur batera. Akuilatzaileek artekarien bidez egiten dute apustua, aurretik ados jarrita daude. Lehen gertatzen zen, eta orain ere bai. Tratu txarrak hortik datoz; gertatu daitezke 25 minutuan idiari ukiturik

ez egitea eta, bat-batean, akuilua belarri azpitik sartzea, idia geratu edo moteldu dadin. Jakina, kasu horretan, akuilatzaileen apustua ezezkia izaten da. Edo, apustuaren arabera, kontrakoa gertatu daiteke. Nire ustez, hor sortzen dira abereekiko tratu txarrak, eta hori da epaile gazteek zigortu behar dutena. Nik horrelako hamaika trikimailu ikusi dut. Epaile batek idi probetan galtzadan gertatzen dena zaindu behar du, baina baita apustu giroa ere.

**Eta epaile izateari utzi zenion.**

Nik banekien tranpak bazeudena, baina probatzea gaitza da. Federazioa joan, biguinduta nengoela esan, eta lau urtez utzi egin nuen. Ondoren, itzuli egin nintzen, ez zegoelako epailerik.

**Iaz, Berrizko jaietako probetan polemika handia egon zen, zorian olioia bota zutelako.**

Neu izan nintzen epailea bertan. Begira: lehen eguneko zaldi proban jabe batek baiezkotua apustua egin zuen, baina bere akuilatzailea eta artekari bat elkar hartuta zeuden ezetzeraz; jabearen biz-



karretik tranpa eginda. Jabeak diru dezente galdu zuen. Azken eguneko idi probetan, nire ustez, jabe horrek berak olioia bota zuen galtzadara, harriak laprast egin zezen, eta idiek errazago mugitu zezaten. Seguru nago baiezkotua eginda izango zuela. Ezin dezaket ziurtatu ehuneko ehunean bera izan zenik, baina ia seguru nago. Proba hori bertan behera geratu zen.

**Jabeak ez dira ohartzen akuilatzaileen tranpez?**

Jabeak sarritan itsututa joaten dira, euren idiaren alde baiezkotua doaz, baina besteen traizioa atzetik dator.

**Abadiñon nor izango da epaile horrelakoak saihesteko?**

Fidagarriak dira, neuk aukeraturutakoak. Kantxakoa emakume bat da, lezamarra, dakidala emakumezko epaile bakarra. Markinan ikusi nuen lehenengoz, eta oso ona da. Eta urterik urtera ikasten dabil. Ziurtatu dezaket epaile oso onak egongo direna.

**MOTOS TABIRA**  
KONTZESIONARIO OFIZIALA  
Salmenta Konponketa Boutiquea  
AJP, PIAGGIO, HONDA, KAWASAKI, SUZUKI  
Tel./Faxa: 946 814 068  
[www.motostabira.com](http://www.motostabira.com)  
Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO

**ABARKETERUENA**  
Iturritxo kalea, 6 Txanporta plaza  
48220 ABADIÑO  
Tel.: 944 657 790

**Zatoz San Blas egunean gurera!**  
Ogitartekoak  
Hamarretakoak  
Menuak  
Pintxoak  
Giro euskaldun eta atsegina egun osoan!

**elebe**  
Iturritxo, 2 behea • 48220 Abadiño  
Tel.: 94 655 01 05

**BEATRIZ CASADO**  
ESTETIKA  
MASAJEAK  
OSTEOPATIA  
Iturritxo, 2 behea (Elebe ile apaindegia)  
Tel.: 696 838 735

Informa zaitези! T. 944 247 566  
www.laurendi.es



**LAURENDI**

**GANTZA ZELAIETA EGOITZA**  
(Mundaratz auzoa)  
BEREHALA BIZITZERA SARTZEKO MODUAN!  
EROSI ORAIN ETA LORTU BALDINTZARIK ONENAK!  
ETXABEAK EDOTA GOKO ETXEBIZITZAK TERRAZA ZARALEKIN  
Laboral Kutxaren finantziatzaileekin: LABORAL KUTXA






**Z E L E T A B E**  
**AUTOD PROMOCIONES S.A.**



**1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak**  
**Kalitaterik oneneko materialak**

Sukalde modernoak behar den guztiarekin.  
 Haritzeko tarima eta barruko ateak.  
 Ateen pieza metalikoak kromatuta.  
 Horma-arnairuak, barrualdea hornituta.



**1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak salgai**

Iturritxo, 7 behea eskuma - Abadiño  
 Tel./Faxa: 944 668 956 - [zeletabe@zeletabe.com](mailto:zeletabe@zeletabe.com)  
[www.zeletabe.com](http://www.zeletabe.com)



**Izaro Andres** | Bakarlarria | Mallabia, 1993

## “*Ekainean hasi nintzen gitarra jotzen eta kanta hauek konposatzen*”

Sare sozialetan zabalkunde handia izan du Izaroren ‘Paradise’ kantak; bere sentsazioez galdetu diogu

**> MUSIKA** Itsaso Esteban  
‘Paradise’ kantaren zure bideoak 9.000 ikustaldi baino gehiago izan ditu hiru astean. Zelan hartu duzu hori?

Oso harrিতuta nago. Izan ere, proba egiteko igo genuen bideoa. Lagun batzuk elkartu ginen: Xabi Aretxabaletak eta Ina Arriolak lagundu zidaten soinuagaz, eta zinemagintza ikasten duen Sara Fantovak bideoagaz. Grabatu genuen, eta, gainera, ondo pasatu genuen. Amaituta ikusi nuen, iruditu zitzaidan oso ondo geratu zela, baina harrigarria da gero sortu den guztia: badirudi jendeare ere gustatu zaiola.

**Zerk uste duzu eragin duela zabalkunde hori?**

Nik uste jendea norbaiten zain egon dela. Bat-batean herri txiki bateko 21 urteko neska bat agertu da, indar handiko ahotsa ez daukana, baina kantaera zelanbait berezia badaukana... Oso Anari zalea naiz, nire erreferenteetako bat da. Baina kontziente naiz oso entzule jakin batentzat sortzen duela, letra oso landuak egiten dituela... Nik, oster, gazteen esparru zabalago batera ailegatu gura nuke.

**Baina nabari da zuk ere letrak asko zaintzen dituzula.**

Bai. Askok gustatzen zait idaztea. Hain nireak diren letrak publikoaren aurrean kantatuz gero, pentsatu nuen nire sekretu guztiak aireratuko nituela, eta zaila sortu zitzaidan hasieran. Baina kontaturatu naiz hori dela jendea identifikarazten duena, eta entzuleak bere istoriora eramaten duela nik idatzitakoa.

**‘Paradise’ kantagaz batera, beste hamaika abesti ere sortu dituzu. Noiz sorturikoak dira?**

Ekainean hasi nintzen gitarra jotzen, eta, horregaz batera, kanta hauek konposatzen. Lehenengoa izan zen *Paradise*. Hasieran, denbora oso laburrean, asko sortu nuen, eta apur bat erlaxatu egin nintzen gero. Asteburu honetan amaitu dut beste kanta bat.

**Zelakoa da azken kanta hori?**

Datorren urtean ikasketak amaituko ditut, eta aurrerantzean ez gara Donostian biziko. Eta, gauza txarrak egon badira ere, hiru urte zoragarri izan direnez, agur kanta bat egin diot Donostiari.

**Hamabi kanta hauekin diskoa kaleratzeko asmorik?**

Jendeak eskatu dit diskoa, eta pentsatu dut aurkezpen gisa oso ondo dagoela disko bat izatea. Bagabiltza aukerak begiratzen, eta lagun batek proposatu zidan bere etxeko estudio txikian grabatzeko aukera dagoela.

**Talde egonkorra osatzeko asmorik badaukazu?**

Buruan darabilt aukera hori ere: beste gitarrista bategaz, baxu-jotzaile bategaz... Nire baldintza bakarra da kontzertuetan nire ordu laurdeneko jazz-blues emandaldia mantentzea!

**Joan den udara arte ez duzu zure kantarik sortu izan?**

Betidanik konposatu izan ditut kantak, 13 urte nituenetik-edo... Baina ez nuen instrumenturik jotzen, ez nituen gehiago landu.



Momentuz bazter utzi ditut kanta horiek, baina izan liteke noizbait horiei berriro heltzea.

**Hainbat kontzertutarako eskaintzak jasoko zenituen, ezta?**

Bai, eskaintza asko jaso ditut, niretzat erreferenteak diren aretoetatik. Ezetx esatea ez da aukera bat! Orain da trena, hartu ezik, seguruenik ez da berriro pasako.

**Otsailaren 6an, esaterako, Donostiako Doka Kafe Antzokian.**

Bai, neu eta Zornotzako Ane Ibarra ariko gara: bera biolinagaz

eta ni gitarragaz, ahotsa, gitarra eta biolina. Gauza desberdina probatu gura dugu zuzeneko horretan. Mikel Markezzen *Zure begiek* kantaren bertsioa ere egingo dugu, esate baterako.

**Mallabian badaukazue kanturako zaletasun berezia...**

Badago Mallabian harrobi bat, bai. Nire kasuan, kantu teknika aldetik dakidana Jasokunde abesbatzagaz ikasi nuen. Horregaz, eta musika asko entzunda, ikasi dut gehien. Orain hiru urte Donostiara joan nintzen ikastera

eta bizitzera, eta abesbatza utzi nuen. Donostian Daniel del Valle Durangoko lagunagaz elkartzen hasi nintzen. Musikenen gitarra ikasten du, eta blues eta jazz estilokan kantatzea proposatu zidan. Hasieran ezin nuen imajinatu gustatuko zitzaidanik, baina asko zaletu naiz estilo horretara.

**Zelan planteatzen duzu hemendik aurrerakoa?**

Komunikazio ikasketak amaitu gura ditut, sei hilabeterako atzerri joateko asmoa daukat, eta kantatzen jarraituko dut, noski!

## Efimeroa izan daitekeela jakinda, momentua gozatu

Interneten oihartzuna lortu du Izaroren ahotsak



‘Paradise’ kantaren bideokliparen irudietako bat.

*Paradise* kanta sare sozialetan zabaldu zuenetik, jende askoren zoriona jaso du Izaro Andresek. Ikusi du hainbatek bere kanta entzutea gomendatu dutela sarearen bitartez. Kantaren hizkuntzaren inguruko kritika ere irakurri du: “Zergatik ingelesez?”, galdetu diote. Eta mallabitarrak erantzun die bere sorkuntzaren %80 euskaraz dela: euskara dela bere hizkuntza. Bideokliperako kanta hori aukeratu zutela, besterik barik.

“Bideoa igo nuenean, azterketetan nenbilen: hiru eginda neuzkan, eta bi egiteko”, kontatu du Izarok. “Bideokliparen ikustaldien martxa ona ikusi ostean, oso nengoen emozionatuta, eta ezin nuen ikasi... Orain bai. Azterketak amaitu, eta dena gaintu ostean, asko nabil disfrutatzen horregaz”.

Bere sorkuntza ezagutarazteko zein besteena entzuteko, sare sozialak baliatzen ditu Izarok, baina diskoak ere erosten ditu. Musikarako zaletasuna amarengandik jaso du. Amak ere kantatzen du, eta zera esaten dio: “Bihar amaitu daiteke hau, Izaro: hankak lurrean!”. Izarok badaki “oso iragankorra izan daitekeela hau”, baina momentua aprobetxatu gura du.

“Nahiz eta lotsa eduki, alboratu”, eta bere buruari zera esaten dio oholtzan: “Hauxe nahi duzu egin, hemen egon nahi duzu, beraz, hankak lurrean ipini eta jo gitarra!”.

Beldurrik handiena, aldiz, egiten duenari arretarik ipintzen ez dion publikoari dio: “Nik nire barruak kontatzen ditut oholtzan, eta noranzko bietako komunikazioa behar dut”.





## Anbulatorioak irakurzaletasuna bultzatzen lagunduko du Iurretan

Irakurzaletasuna lantzeko gomendioak emango dituzte osasun zentroan

**> EKIMENA** Itsaso Esteban Irakurzaletasunak pertsonen garapen intelektual zein emozionalean duen garrantziaz jabetuta, Bularretik Mintzora ekimenagaz bat egin du Iurretako ambulatorioak. Espazio berri eta esanguratsua irabazi du, beraz, azken urteotan herrian martxan egon den Bularretik Mintzora ekimenak.

Jaioberriak direnetik zortzi urte betetzen dituzten arte, haurren eta euren senideen irakurzaletasuna bultzatzeko Bularretik Mintzora ekimenean parte

hartzen du Iurretako Udalak 2008. urtetik. Orain arte, herriko ikastetxearen eta Herri Bibliotekaren indarrak batu ditu udalak helburu horretan: besteak beste, hezitzaileei eta gurasoei ipuinen eta kantuen inguruko formazioa eskaini die. Izan ere, “umeek literaturagaz gozaten ikasi dezaten, haurrekin harremanetan dauden helduak heztea” da Bularretik Mintzora ekimenaren egitekoetako bat.

Ildo horretatik jarraituta, aurtan beste pauso bat emango dute Iurretan: herriko pedia-

Bi hilabetetik aurrerako Iurretako haur guztiengana zabalduko dute Bularretik Mintzora ekimena

triako osasun zerbitzuaren birtatez, 2 hilabetetik aurrerako Iurretako haur guztiengana zabalduko dute ekimena. Horretarako, 2015. eta 2016. urteetan jaiotako umeen familietan irakurzaletasuna bultzatzeko protokoloa diseinatu dute.

Besteak beste, elikadurari buruz ematen dituzten bezala, irakurzaletasunagaz loturiko gomendioak ere emango dizkiete profesionalak Iurretako gurasoei haurren ohiko osasun kontrolatan. Euskal haur- eta gazte-literatura sustatzeko lanean diharduen Galtzagorri elkarteak argitaraturiko materiala (jokoak eta kantak biltzen dituen cd-liburua) banatuko diete ambulatorioan, eta familiek gaia zelan lantzen duten ikusteko jarraipena egingo dute.

Lan hori garatu ahal izateko, irakurzaletasunari buruzko formazioa jaso zuten Iurretako ambulatorioko pediatrek eta erizainek udazkenean. Izan ere, ekimenaren aurkezpenean azpimarratu dutenez, “ahozko eta idatzizko testuak partekatzeak hobetu egiten du umearen garapen afektiboa, intelektuala eta linguistikoa”.

Bularretik Mintzora bultzatzen duen Galtzagorri elkartearen ordezkariak, Itziar Zubizarretak, azpimarratu du “Herri Biblioteka eta osasun zentroa lotu” gura dituztela egitasmo honegatik, “Herri Biblioteka abiapuntu eta helburu hartuta”.

Proiektuaren arduradunek azaldu dute Iurretan martxan ipiniko duten ekimenaren antzeko egitasmoetan Bilboko Abusu auzoko osasun zentroa dela aitzindari, eta emaitza ederak eman dituela orain arte.

informazio gehiago eskuratzeko, [bizkaia@bertsozale.eus](mailto:bizkaia@bertsozale.eus) helbidera idatzi daiteke, edo 946 812 711 telefonora deitu.

Iaz antolatu zituen lehenengo horrelako ikastaroak Bizkaiko Bertsozale Elkarteak, eta, eduki zuten erantzuna ikusita, aurtan berriro eskaintzea erabaki dute. Algortan eta Markina-Xemeinen ere eskainiko dituzte ikastaroak.

Ikastaroak doakoak dira, eta saio bakoitza baino bi egun lehenagora arte izena eman ahalko da

### GEURE DURANGALDEA

**JON IRAZABAL**

Gerediaga Elkarte



### IurreOTA: ez dut ulertzen

2014ko azaroan batzar bi izan ziren Ibarretxe kultur etxean. Elizateko kaskoan kotxeen aparkalekuak berrantolatzeko asmoa zuela eta berrantolaketa zelan egingo zuten azaldu zuten udalak. Udalak biztanleen iritzia ezagutzeko asmoa azaldu zuten, eta hori benetan txalogarria da. Batzarretan sistema berriak ez zuela, ez iurretarrantzat, ez kanpokontzat, ordaindu beharrik ekarriko azaldu zuten. Kale artean dauden aparkalekuak hobeki erabiltzeko sistema izango zela. Eta guk, inozok, sinetsi. Doakotasunak amaiera data zuela jakin genuen, gero. Iurretarrak 2015ean kotxea bertakoentzako gunean uzteko 45 euro ordaindu beharko genuela. Aldaketa justifikatzeko “gestio gastuak” argudiatu dituzte. Sistema berriak gastu handiak sortu ei ditu udaletxean. Zer ordaintzen dugu 45 euro horiek? Auzokideok behar ez ditugun makina biak? Makina biek kanpotik etorritakoei ematen diete zerbitzua. Kanpotik datorrenak doan duela OTA pentsatzen du baina... errealitatea da herritarrok “gonbidaturik” apartatzen dutela.

Bestalde, Iurretan kokatutako negozioek posible dute bertakoek bezala kotxeak egun osoan apartatuta izatea. Hauek ere txartela atera behar dute baina... Hauek 45 barik 90 euro ordaindu behar dute. “Gestio gastuetarako”. Kotxe hauen txartela zer dela eta da garestiagoa? Ez ditu udalak kasu bietan gestio gastu berdina? Susmoa dut Iurretako Udalak herritarrei dirua ateratzeko beste *sakamantekas* bat aurkitu duela OTAn. Espaziorik ez dudanez, hurrengoan idatziko dut makinen “ordutegi” xebebreari buruz... Bukatzeko etxerako lanak: begiratu akordio hau hartu duten zinegotzietatik zenbat bizi diren Iurretan.

## Epailtzari eta gai-jartzailtzari buruzko ikastaroak, Bertsozale Elkartearen eskutik

Bertsozale elkartearen Durangoko egoitzan egingo dituzte ikastaro biak



lazio ikastaroen arrakastak bultzatuta egin dute aurtan ere eskaintza.

**> BERTSOLARITZA** A. Ugalde Otsailaren 5ean, epailtzari buruzko ikastaroa eman du Asier Ibaibarriagak, eta, otsailaren 10ean, gai-jartzailtzari buruzkoa Maitte Berriozabalek. Ordu biko ikastaro laburrak izango dira, 18:30etik 20:30erako ordutegiaz. Ikastaroak doakoak dira, eta izena emateko epea ikastaro bakoitza baino egun bi lehenago amaituko da. Izena emateko edo

Sanagustinak, 12 - 48200 Durango  
 sa.nagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

**Arrastoak**  
 Dejabu Panpin Laborategia  
 Otsailaren 1ean  
 19:00etan

San Agustin KULTUR GUINEA

**PLATERUENA**  
 Durangoko Kafe Antzokia  
 www.plateruena.net

<b>URTARRILAK 30</b> 20:30ean 12€  <b>GONTZAL MENDIBIL</b> + MIKEL MARKEZ eta ARKAITZ MINER MUSIKA KONZERTUA	<b>URTARRILAK 31</b> 23:00etan 12/15€  <b>ERNESTO SEVILLAREN</b> ESTREINUA BAKARRIZKETA	<b>OTSAILAK 7</b> 22:30ean 6/8€  <b>IZAKI GARDENAK</b> + INUN MUSIKA KONZERTUA
--	--	---

**EGUNEKO MENUA**  
 ASTELEHENETIK LARUNBATERA

Lehenengo etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 000



 **Kirola**

# Laureano Lara eta Jimi Rojas aurrez aurre lehenengo bider

Durangoko Street KO jaialdiaren barruko borrokaldi nagusia izango da



Laureano Lara ezkerrean, Christian Barreira erdian, eta Jimi Rojas eskuman.

**> KICKBOXINGA** J. Derteano Otsailaren 21ean, borroka arteen Durango Street KO jaialdia antolatuko dute Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Hainbat borrokaldi ikusi ahal-ko dira, baina nagusia, denek bertatik bertara jarraitu gura dutena, Laureano Lara berrizarraren eta Jimi Rojas durangarraren artekoa da.

Borroka arteen erreferente dira biak Durangaldean, 50 urte eginak dituzte, lagunak dira, eta lehiaketa ofizialetatik erretirata daude. Beraz, zelan sortu da borrokaldia? Biek komunean duten Christian Barreira durangarrak du *errua*: "Orain bost hilabete, elkarrekin geunden egun batean, bien arteko borrokaldi bat ikustea itzela izango litzatekeela esan nien, eta, ustekabean, 'zergatik ez?', esan zuten". Harrezkero buru-belarri ibili da antolaketa lanetan Barreira. Izar bien arteko borrokaldiak badu beste berezitasun bat:

jendurrean sekula elkarren kontra borrokatu gabeak dira: "Orain 20 urte entrenamenduetan elkarren kontra ibiltzen ziren, baina jendurreko borrokaldi batean sekula ere ez". Kaiola batean eta kickboxing modalitatean neurtuko dituzte indarrak, minutu bi eta erdiko bi asaltotan.

Jaialdia 18:00etan hasiko da, eta borrokaldi nagusiaren aurretik beste hainbat izango dira: K1 modalitatean, Aritz Abui-Gustavo Joao eta Unai Fernández-Wesley Berriozabal neurtuko dira, eta, MMA (Mixed Martial Arts) mailan, lau borrokalariaren arteko kanporaketak egongo dira ikusgai: Giorgi Bazanov, Ángel Martínez (Abadiñon bizi da), Antxon Arias (Zornotza) eta Ignacio Capella.

## Sarrerak salgai

Jaialdirako sarrerak honako salmenta gunetan erosi daitezke 12 euroan: Durangoko Sweet&Vicious, El Altar de Santa Apolonia, Karreto's eta Kirol Errotan, Traña-Matienako Tipi Tapak tabernan eta Ermuko Tukos Fitness-en. Orain astebe-te hasi zuten sarreren salmenta, eta dagoeneko erdiak baino gehiago saldu dituzte.

## Arregi, Merino eta Orts onenak Abadiñon

### > ZIKLO-KROSA

Joan zen zapatuko Abadiño-ko ziklo-kros proban Asier Arregi eta Eider Merino izan ziren onenak elite mailan, eta Felipe Orts 23 urtez azpikoan. Azpimarratzekoa da 23 urtez azpikoan Jon Munitxa abadiñarraren bigarren postua. Emakumeetan, BZK taldeko Naia Alzolak ezker belauna bendekin lotuta lehiatu zuen; ezin izan zuen irabazi, baina denboraldiko Euskaldun Torneoa beretzat izan da.

## Euskadiko Txapelketan lan bikaina Fexmack klubekoek

Bost ordezkari Euskadiko Txapelketa irabazi dute



Fexmack klubeko gazteak.

### > KICKBOXINGA

Zapatuan kickboxingeko Semi Contact modalitateko Euskadiko Txapelketak jokatu zituzten Gasteizko Mendizorrotza kiroldegian. Abadiño-ko Fexmack klubeko Julen Muñoz, Alex Henderson, Jazmin Henderson, Alazne Escabias eta Lorea Solana Euskadiko txapeldun geratu ziren nor bere pisuan.

Irabazleek martxoaren 7tik 8ra Madrilen jokatu den Espainiako Txapelketan parte hartuko dute euskal selekzio-gaz. Aurretik, otsailaren 14an, kickboxingeko Light Contact modalitateko Euskadiko Txapelketa lehiatu dute Fexmack klubeko gazteek.

## AGENDA

### > FUTBOLA

#### BIGAREN B MAILA

##### Amorebieta - Leioa

· Zapatuan, 17:00etan, Urritxen.

#### HIRUGARREN MAILA

##### Kulturala - Aurrera Vitoria

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

#### MAILA GORENA

##### Zaldúa - Uritarra

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

#### BIGAREN ERREGIONALA

##### Iurretako B - San Miguel

· Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelaian.

#### HIRUGARREN ERREGIONALA

##### Elorrio B - Moraza B

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

#### BIZKAIKO KOPA

##### Iurretako - Berrio Otxoa

· Domekan, 16:00etan, Larrakozelaian.

#### LURRALDEKAKO MAILA

##### Elorrio - Gallarta

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

### > ARETO FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

##### Elorrioko Buskantza - Sasikoa

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrion.

#### MAILA GORENA

##### Sasikoa B - Otxartabe

· Zapatuan, 19:30etan, Landakon.

### > SASKIBALOA

#### LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

##### Zornotza - Derio

· Domekan, 20:00etan, Ixerbekoan.

#### LEHEN ERREGIONALA

##### Anbotopeko - Jesuitinas

· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

### > ESKUBALOA

#### EMAKUMEEN SENIOR LIGA

##### Ibaizabal - Jarrilleras

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

### > ERRUGBIA

#### EUSKAL LIGA

##### Elorrio Parra Tab. - Arrasate

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrion.

**hitz** liburudenda

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT	UME ETA GAZTEENTZAT	MUSIKA
 ZER OTE DA ARTE GARAIKIDEA? Txemi Valdecantos (2014)	 ADUR ETA IZAR EUSKAL MITOLOGIAN Taro, Roselló eta Bengoa (2014)	 LIVE AT MONTREUX 1995 Shane MacGowan & the Popes (2013)

**ITURRIAGA SUKALDEAK**  
Gremioen koordinaketa

Trofaetxosle, 2-45220|Abadiño - Tf. | fax: 94 655 07 22-605 740 176



# Durangoko herri krosaren hirugarren aldia antolatuko du Mugarra Triatloi Taldeak domekan

Durangoko kaleak zeharkatuko dituen ibilbidean, 10 eta 5 kilometroko lasterketa bana daude aukeran



Durangoko herri krosetako irteerako unea. MugarraTT

**> HERRI KROSA** J. Derteano Mugarra Triatloi Taldeak antolatuta, Durangoko III. Herri Krosa lehiatuko dute domekan, Durangoko kaleetatik zehar ezarritako zirkuituan. Urtero legez, 5 eta 10 kilometroko lasterketa bana egongo dira aukeran.

Lasterketa biak 11:00etan hasiko dira, Ezkurdin, eta toki

berean dago helmuga ere. Proba laburra aukeratzen dutenek zirkuituari itzuli bat emango diote, eta gainerakoek bi. Ezkurditik abiatuta, Ermodo kaletik Landako etorbidera sartuko dira korrikalariak; Txibitena auzunetik bueltan, Arripauseta pistaren atzealdeko bidegorritik berriro Landakora bueltatuko

dira; ondoren, Mikeldi, Frai Juan Zumarraga, Alluitz eta Askatasun etorbidek egingo dute Ezkurdirainoko bidea.

